

Hildako soldadu frantses bat Marulandan - 1807.03.26

Marulanda auzoko katearen inguruan, kate-etxeko* arduradunak ez zuen "*buila edo zarraparrarik*" entzun hilaren hogeita seiko gauean, San Cosme eta San Damian egunean. Zarimuz auzoko Ramon de Leivarrek ere ez zuen ezer arrarorik ikusi, ezta entzun ere, goizeko seietan etxetik irten zenean. Eta hori bat dator Julian de Echavarriak, Marulandako Bentan bizi zenak, adierazitakoarekin. Honek Leintz Gatzagara meza entzutera joan zenean jakin zuen jendea berbetan zebilela "*benta-etxe horretako baratze ondoko ezponda baten gaztainondo adar batetik zintzilik eta hilik zegoen gorputz bati*" buruz.

Eskoriatzako alkate zen Jose Ignacio de Mendia eta Urtazak jakinarazi zuenez, horren berri hilaren hogeita zazpian eman zioten, arratsaldeko ordu bietan. Esan ziotenaren arabera, Marulandan gizon bat hilda zegoen, soldadua itxura batean, baina inork ez zekien nor zen eta nola hil zen.

Eskribauak aditzera eman zuenez, ordu erdira, alkatea, Juan Ignacio de Zugazagoitia zirujaua eta Asensio de Guruceta herriko aguazila udaletxetik atera ziren Marulandara hurbiltzeko. Hiru eta erdiak aldera iritsi ziren bertara, eta, Salinero deitzen zioten ibaiaren ertzean (Deba), gizon baten gorpua aurkitu zuten, ahoz gora etzanda, burua iparraldera eta oinak hegoaldera begira zituela. "*Kasaka urdina eta galtza gorriak, biak oihalezkoak; txaleko gorria apaingarri zuriekin; oihal beltzezko polainak; konpondutako zapatak, lazozko lokarriekin eta mihisezko alkandora arrunta*" zituen jantzita. Gaztainondoaren ondoan, halaber, "*hiru puntako kapela bat, idaur makila bat, dozena erdi sagar berde oihal zati baten batuta, hari zurizko zinta zati bat eta horri itsatsitako beste zinta beltz bat*" aurkitu zituzten.

Zirujaua lehen begiratuan ohartu zen gorpua hari gogorreko zinta zuri bat zeukala lepoan lotuta, gaztainondoaren azpian aurkitutakoaren antzekoa. Belarritik belarrirainoko ebakia zuela ere konturatu zen.

Ikuskizun horren aurrean, alkateak hildakoa gurdi batean kargatu eta Eskoriatzara eramateko agindua eman zuen, errekonozimendua egin ziezaioten. Gorpua arratsaldeko seietan iritsi zen Kontzejuko ate nagusira. Sei eta erdietan, lehen aipatutako alkatea, zirujaua eta aguazila agertu ziren, eta zirujaua azterketarekin hasi aurretik, ondoko hauek aurkitu zizkioten gorpuari: kasakaren barruko poltsikoan, ardi-larruzko poltsa bat, eta horren barruan, 2 suharri, altzairua eta erretzeko pipa motz bat; eta txalekoaren ezkerraldean, barrualdeko poltsiko batean, paper bat.

* Kate-etxeetan, gurdiak geldiarazi eta hirian sartzen ziren merkantzia guztiengatik arielak kobratzen ziren.

Zirujauak, bere aldetik, zin egin ondoren, gorpua aztertu zuen, eta esan zuen belarri batetik besterainoko ebakia zuela, ebaki hori zain jugularretaraino iristen zela, eztarri osoa hartuz, eta horren ondorioz hil zela; ahaztu gabe lepoan zuen sokak egiten zion presioa. Deklaratzaileak garbi utzi zuen gorputz osoan ez zela zauririk aurkitu, ez eta ubeldura susmagarrikeria ere.

Ondoren, alkateak beste lekuko bati deitu zion, Mathias de Galdosi. Hau Marulanda auzoko kate-etxean bizi zen garai hartan, eta katea eta haren bidesaria administratu eta ordainarazteaz arduratzen zen; horregatik egon zen hogeita seiko ia gau osoan ohera erretiratu gabe, baina ez zuen soldadu hila kate horretatik pasatzen ikusi. Entzun zuenez, lurrera erori zen, lepotik zintzilik eusten zion soka gorputzaren pisuagatik hautsi zelako.

Hurrengo egunean, irailaren 28an, zirujauak alkatearengana joan ziren, eta adierazi zuten gorpua aztertu berri zutela, eta ondorio hauek atera zituztela: *"itxuraz, hogeita hamar eta berrogei urte bitarteko adina du, aurpegi biribila, begi urdinak, sudur motz arrunta, ile, bekain eta bizarra gaztain kolore argikoak eta bekoki garbia, eta garaiera onekoa da, sei oin gaztelar gainditzen baititu, eta ile motzekoa"*.

Herriko Alkate-Epaileak, entzundako guztia argitu nahian, inguruetako lekuko gehiago deitu zituen, besteak beste, Joaquin de Echavarria, Zarimuzko bizilaguna. Honek adierazi zuen azken larunbatean Arantzazuko Santutegira joan zela erromerian, eta igandean itzuli zela etxera; entzundakoa baino ez zekiela, Marulandako Benta Etxeko baratze ostean soldadu bat gaztainondo batetik zintzilik aurkitu zutela, eta *"soldadu hori, larunbat hartan, masustak jaten ibili zela inguru hartako sasi arteetan."*

Informazio bilaketarekin jarraituz, lekukoei deitzen jarraitu zuen, kasu honetan Domingo de Velategi, Zarimuzeko Zurun baserriko bizilagunari. Hark adierazi zuenez, *"Marulanda bentako bere baserritik atera eta aurrez aurre dagoen Salinero ibaira jaitsi zen eskuak eta aurpegia garbitzera, eta bertatik, gaztainondo baten alboan zerbait ikusi zuen, eta pentsatu zuen intxaurrak batzen zebilen norbait izango zela"*. Garbitu ondoren, Gatzagako bidea hartu zuen, parrokiaren meza entzuteko asmoz. Bidean, Miguel de Azpiazu eta Basilio de Echavarriarekin elkartu zen, biak ere Gatzagara meza entzutera zihoazen mutil ezkongabeak, eta esan zuten denek ikusi zutela Errege Bideko ertzetik ibai aldera gizon bat gaztainondo adar batetik zintzilik, arropa urdina eta soldadu-uniforme itxurako jaka motz bat jantzita zutela.

Beste lekuko batek, Vicente de Aguirianok, Bolibarko elizateko bizilagunak, urriaren 1ean deklaratu zuen, eta adierazi zuen irailaren 26an Gatzagara joan zela elizate horretako sakristauaren etxe berrirako teilak ekartzera; eta igotzerakoan, goizeko bederatzi eta erdietan, Bentako ate parean urdinez jantzitako gizon bat ikusi zuela, soldadu itxurakoa; eta honek, Errege Bidea utzita, ezkerretara jo zuela, ibaiaren sakonunerantz, Marulandako Bentako baratzetik pixka bat gorago.

Lekukoen deklarazioak amaitu eta egiazkotzat jo ondoren, Jainko Jaunaren izenean eta Gurutze Santuaren seinaleren gainean zin eginez egin zirelako, Alkateak kasaka barruko poltsikoan aurkitutakoa aztertzeari ekin zion.

Poltsiko horren barruan, lizentzia absolutuko pasaportea aurkitu zuen, Coupignyko kondeak, Errege Armadetako teniente jeneral eta Erregimentuko komandanteak, emana azken uztailearen 30ean.

Bertan zehazten denez, lizentzia absolutua ematen zaio Rodolfo Mayerri, Mayer ezizenez, Walona Infanteriako Errege Gardien Erregimentuko 1. batailoiko 1. konpainiako soldaduari.

Horrela bada, badakigu protagonistak Rodolfo Mayer zuela izena, Schirvisbomelen (Suedia) jaioa zela eta katolikoa, apostolikoa eta erromatarra zela. Ezin dugu aitaren izena jakin, irakurtezina delako, baina badakigu bere amak Carlota zuela izena.

Bere fitxa militarrean agertzen denaren arabera, hogeita hamabost urte zituen, bost oineko altuera, aurpegi biribila, bekoki garbia, begi urdinak, sudur arrunta, kokots biribila, ile, bekain eta bizarra gaztain kolore argikoak, eta 1801eko martxoaren 4az geroztik zegoen Erregimentu horretan.

Geroago, Coupigny kondeak bidalitako albisteak iritsi ziren Baionatik. Horien arabera, Mayer soldadua abuztuaren 30ean lizentziatu zuten, bere jokaera maniakoagatik Errege Zerbitzurako ezgauza zelako. Haren ustez, soldaduak, bere egoeran eta nora jo ez zekiela, bere burua hiltzeko erabaki desesperatua hartuko zuen.

Baina nor da gai bere lepoa alderik alde moztu eta gero bere burua urkatzeko, edo bere burua urkatu eta eskegita dagoela eztarria alderik alde mozteko?

Amaitzeko, jasotzen da Joaquin de Saribiarte, parrokiako Presbitero Onuraduna bertan zelarik, gorpua bere jantziekin lurperatu zutela *"parrokia zahar horretako elizaren iparraldeko horma nagusiko bi kontrahormen artean, horma nagusi horretatik zazpi oinetara, ate nagusitik sartu eta ezkerretara; non gaur egun ez dagoen hilobirik"*.

Aitor Antxia Leturia
2025.01.13